

INTERES-GATAZKEI BURUZKO POLITIKA KORPORATIBOA

INTERES-GATAZKEI BURUZKO POLITIKA KORPORATIBOA

Euskaltel Taldea enpresa-talde bat da, legearen arabera merkataritza-talde baten parte diren sozietatez osatua, zeinean Euskaltel SA baita erakunde nagusia. Politika honetan, Euskaltel Taldea edo Euskaltel aipatzen denean, ulertu behar da Taldea osatzen duten sozietate guztietan aplikatzekoak direla aipamen horiek.

Euskaltel Taldearen Gobernu Korporatiboko Sistemaren parte da dokumentu hau, eta, Taldearen Kode Etikoaren barruan, interes-gatazkei dagokien zatia jasotzen du; zehazki, Euskalteko Administrazio Kontseiluari (kontseilariei) nahiz Euskaltel Taldean jarduera profesionala dutenei (profesionalei) eragiten dieten interes-gatazkei dagokiena.

Politika honen helburua da Euskalteko kontseilariek eta profesionalak interes-gatazka bat dutenean haien jarduna erregulatuko duten oinarritzko printzipioak finkatzea, interes-gatazka horiek zentzu zabalean hartuta eta gatazka mota horren barruan sar daitezkeen egoera zehatz guztiak aipatu beharrik izan gabe. Politika honi buruzko zalantzarik bada edo interes-gatazka bat gertatzen bada, kontseilariek Izendapen Batzordera edo Administrazio Kontseilura jo behar dute, eta profesionalak, berriz, araudia betearazteko arduradunarengana edo Taldearen Kanal Etikora.

Interes-gatazkaren definizioa

Euskaltel Taldearen Kode Etikoak Euskaltel Taldearen interesa lehenesten du interes pertsonalen aurretik. Kontseilariek eta profesionalak beren ardurak eta funtzioak behar bezala betetzeko oinarritzko eskakizuna da Taldeaz kanpoko interesekiko independentzia izatea, eta, beraz, Euskaltel Taldearen interesak lehenetsi behar dituzte, beren erabakietan eragin dezaketen interes pertsonalen edo hirugarrenen interesen aurretik.

Horren arabera, interes-gatazka bat dagoela esango da kontseilariaren edo profesionalaren interes pertsonala eta Euskaltel Taldearen interesa bata bestearen kontrakoak direnean, zuzenean edo zeharka.

Kontseilariaren edo profesionalaren interes pertsonaltzat jotzen da hari, berari lotutako pertsona fisiko bati edo pertsona juridiko bati eragiten dion edozein interes —pertsona juridikoen kasuan, ordezkapen- edo zuzendaritza-kargua edo bestelako edozein ardura izaten badu, ordaindua edo ordaindu gabea izan—.

Interes-gatazka dagoela esango da gatazka horren parte diren pertsonen Taldearen interesez bestelako interesak izan litzaketenean, egoeragatik beragatik; hau da, ez da nahitaezkoa gatazkan dauden interesekiko modu batera edo bestera jardutea edo jardun izana. Horrenbestez, interes-gatazka gertatzen da gatazkan topo egiten duten interesengatik hartzen den erabakia edo ekintza edozein dela ere, eta erabaki edo ekintza horiek Taldearen interesen aldekoak izan edo ez.

INTERES-GATAZKEI BURUZKO POLITIKA KORPORATIBOA

Bestalde, Taldearen interesen kontrakoa den erabaki profesional bat hartzea edo ekintza bat egitea (interes-gatazka egon edo ez) Kode Etikoaren kontrako erabaki edo ekintza bat litzateke beti, eta izaeraren arabera ondorio zehatzak izango lituzke, baita penalak ere.

Interes-gatazka definitzerakoan aipatu diren kontseilari eta/edo profesional bati lotutako pertsonak hauek dira:

- Ezkontidea edo antzeko harreman afektiboa duen pertsona.
- Beraren edo ezkontidearen aurrekoak, ondorengoak eta anai-arrebak.
- Aurrekoen, ondorengoen eta anai-arreben ezkontideak.
- Merkataritza Kodearen 42. artikuluko lehen atalean aurreikusitako egoeratako edozeinetan, berez edo ezarritako pertsona baten bidez, dauden sozietateak.
- Administrazio-kargu bat edo zuzendaritza-kargu bat betetzen duen edo edozein arrazoiengatik edozein motatako ordainsaria ematen dion erakundea.

Interes-gatazka batean dauden pertsonen pertsona juridikoak ordezkatzeko dituzten kasuetan, haien kideztat hartuko dira honako hauek, aurrekoen gain:

- Pertsona juridikoarekiko Merkataritza Kodearen 42. artikuluko lehen atalean jasotako egoeretakoren batean dauden bazkideak.
- Ordezkatutako pertsona juridikoaren administratzaileak (eskubidezkoak edo izatezkoak), likidatzaileak eta ahalorde orokorrak dituzten ahalduak.
- Pertsona juridikoaren eta haren bazkideen talde beraren parte diren sozietateak.

Interes-gatazka sor dezaketen egoera-motak

Interes-gatazka sor dezaketen egoera-mota asko daude, eta ez dute bata bestea baztertzen. Edonola ere, interes-gatazka egiturazko gatazka iraunkor bat den kasuan, edo izan daitekeelako uste arrazoizkoa dagoen kasuan, ulertuko da kontseilariak edo profesionalak ez duela bere karguan jarduteko beharrezkoa den egokitasuna.

Euskaltel Taldeko kontseilariak eta profesionalak interes-gatazka saihesteko betebeharra dute, eta gertatzen diren unean jakinarazi behar dituzte, zehatz-mehatz aztertzeko. Azterketaren emaitza edozein dela ere, guztiz debekatuta daude ondoren aipatutako diren interes-gatazka, berdin dio pertsonak berak edo hari lotutako pertsona batek eragin:

- Taldearen bidez erosketak egitea (salbu bezeroentzat kondizio estandarretan egindako operazio arruntak eta garrantzi gutxikoak direnean).
- Taldearen izena edo bertan duen kargua erabiltzea operazio pribatuak egiteko.
- Taldearen aktiboak erabiltzea —informazio konfidentziala, hirugarrenei kontratatutako zerbitzuak eta haien profesionalen zerbitzuak— operazio pribatuak egiteko.
- Taldearen negozio-aukeretatik probetxua ateratzea.
- Taldetik kanpokoak diren hirugarrenen eskutik edozein motatako abantailak edo ordainsariak jasotzea bere ardurapekoa den jardunari lotuta.
- Taldearentzat benetako lehia, egungoa edo etorkizuneko, izan daitezkeen jarduerak egitea norberarentzat edo beste batentzat.

INTERES-GATAZKEI BURUZKO POLITIKA KORPORATIBOA

- Taldearen lehiakide den erakunde batentzat kontsultari, kontseilari, zuzendari, langile edo aholkulari gisa lan egitea.
- Berari lotutako pertsonekin Taldearen izenean kontratuak negoziatzea edo formalizatzea.
- Taldearen hornitzaile batekin harreman komertzialak, administrazio-harremanak edo kudeaketa-harremanak izatea.
- Berari lotutako pertsona baten kontratazioa edo lanaren ebaluazioa gainbegiratzea, berrikustea edo erabakian nolabaiteko eragina izatea.

Indarrean dagoen araudia edo barne-araudia aplikatzen sor daitezke beste interes-gatazka batzuk —Balio Merkatuetan Jarduteko Barne Araudian jasotakoak aplikatzen, adibidez—, baita hirugarrenekin egindako hitzarmen espezifikoetan jasotakoetatik, zeinetan baldintza zehatzagoak defini baitaitezke. Halakoetan, dagozkien araudi edo hitzarmen espezifikoetan ezarritakoari men egingo zaio.

Jarduera-printzipio orokorrak

Euskaltel Taldeko kontseilariak eta profesionalek saihestu egin behar dute interes-gatazka sor dezakeen edozein egoera. Edonola ere, Taldeko kontseilariak eta profesionalek printzipio orokor hauei kasu egingo diete interes-gatazka bihurtzeko edozein egoeraren aurrean jarduteko garaian:

Independentzia

Taldeko kontseilariak eta profesionalek profesionaltasunez jardungo dute uneoro, Taldearekiko eta akziodunekiko leialtasunez, beren edo hirugarrenen interesekiko mendekotasunik gabe, eta uko egingo diote beren interesak Taldearen aurretik jartzeari.

Uko egitea

Taldeko kontseilariak eta profesionalek ezin dute parte hartu edo bozkatu berek, berei lotutako pertsonen edo erakundeek zuzeneko edo zeharkako interes-gatazka sortzen duten hitzarmen edo erabakietan; salbuespen bakarra kontseilariena izango da, Taldearen administratzaile gisa eragiten dien hitzarmen edo erabakien kasuan.

Uko egiteko betebeharrak barnean hartzen ditu, zehazki, interes-gatazkari zuzenean eragiten dion informazioa eskuratzeko gaitasuna eta Taldeko profesionalekiko edonolako mendekotasun hierarkikoa duten pertsonen instrukzioak emateko gaitasuna.

Komunikazioa eta Gardentasuna

Taldeko kontseilariak eta profesionalek gardentasun osoz eta ahalik eta lasterren jakinarazi behar dute interes-gatazka sor dezakeen edozein egoera, jarduteko printzipio berezien arabera.

Taldeko kontseilariak izan ditzaketen interes-gatazken berri emango zaie akziodunei, ekitaldiko urteko kontuen memoriaren bidez.

INTERES-GATAZKEI BURUZKO POLITIKA KORPORATIBOA

Konfidentzialtasuna

Interesa duten aldeek jakinarazitako interes-gatazkei buruzko kontuak konfidentzialtasunez eta pertsonen intimitatea errespetatuz landuko dira, eta berdin tratatuko da egoera horiek jasotzen dituen erregistroa.

Jarduera-printzipio bereziak

Interes-gatazkei dagokienez, Taldeko kontseilariak Administrazio Kontseiluaren Araudian ezarritakoaren arabera jardungo dute, eta, hala dagokionean, parte hartzen duten Batzorde ordezkarien araudien arabera. Izendapen eta Ordainketen Batzordearen eskumenekoak dira Taldeko kontseilari batek izan dezakeen interes-gatazkarekin erlazionatutako edozein azalpen edo gai.

Taldeko profesionalen kasuan, berriz, Araudia Betearazteko Batzordeak ezarriko ditu prozedurak eta hark garatuko du politika hori Taldearen barruan, dagozkion funtzioak betez eta Taldearen Kode Etikoaren esparru orokorraren barruan.

Kode Etikoaren kontrakoa da interes-gatazkak ez jakinaraztea; horregatik, halako egoera baten berri izanez gero, araudia betearazteko arduradunarengana (Compliance Officer) edo Kanal Etikora jo behar da.

* * * * *